

**UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)
2008/2009 IKASTAROA**

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Antzerkiko edozein ikastaro egiten duzunean, bai ikasle bai irakasle modura, normala denez, askotan agertzen da galdera mamitsu bat: zergatik egiten ari zara ikastaro hau? Edota, zergatik egiten duzu antzerkia?

Beti ematen dira erantzun batzuk eta, ikastaroak aktoreei bereziki zuzenduta badaude, zenbait gauza errepikatzen dira etengabe.

Horietako batzuk ikastarora heltzen dira kasualitatez, lagun batek esan diolako, taberna batean kartel bat ikusi zuelako edo Interneten ibiltzen deskubritu zuelako, eta denbora libre tarte bat betetzeko aukeratzat jotzen duelako.

Badaude bokazio baten atzetik ibiltzen direnak ere, txikitatik holako zerbait egin nahi izan dutenak. Horrelako askok ez dakite **azaltzen** zergatik aktoreak izan nahi duten. Zinema zein telebistari begira datozenak ere badaude, beraien aurpegia pantailetan ikusi nahi dutenak.

Profesional mailan funtsean deskribapen berdintsu bat egin daiteke. Ni urte batzuk pasa eta gero konturatu nintzen nire bokazioaren zergatiaz, batzuk beti heltzen baikara berandu leku guztietara, zer egingo diogu!. Nik antzerkitik bideratu nuen komunikazio behar bat. Aro honetan eroso sentitzen naiz besteekiko komunikazio bide bat **lortu** dudalako eta bide horretan asko gustatzen zaidan ofizio bat aurkitu dudalako, antzezlearena hain zuzen ere. Aktore izanik, ondo pasatzen dut edozein gauza egiten, erregistro ezberdinetan jolasten.

Baina eratzaille **moduan** nigandik obra bat eratzen dudanean, nire bideak bilatzen ditut, bilatzen dudak komunikazioa ahal den **neurrian** eraginkorrena izateko asmotan. Horretarako, eratzaille izatean, denok daukagun askatasuna erabiltzea ezinbestekoa da eta hori nolabait irabazi behar den eremu bat da, konplexu nahiz beldurretatik **kanpo**. Izan ere, benetako aberastasuna bakoitzaren ikuspegiaren dago, askatasunez eta sormena erabiliz.

Antzerkian –uste dut artearen **esparru** guztietan- pertsonaia ‘zentsuratzaille’ asko dagoelako diot hori. Haien ametsa historia liburuetan agertzea da. Normalean, teoria guztiei buruz asko dakitenak, eta haien ahotik beste batzuen esaldiak etengabe ateratzen dira; hori bai, jenioen esaldiak, ez edonorenak. Irakurri duten guztia demostratu behar dute eta gehienetan besteekiko beraien frustrazio guztiak islatzen dituzte. Nolabait, txiki egiten dituzte besteak beraiek handiak izan nahian.

Horrelako batzuk ezagutu ditut **jadanik** eta nahiko pertsonaia barregarriak dira, haiekiko distantzia pixka bat hartzen baldin baduzu, are gehiago, gauza interesgarri batzuk ikasten ahal dira haiengandik eremu batzuetan dudarik gabe.

Nire iritziz, pertsona guztiok nahi dugun guztia egin dezakegu, denbora eta lanarekin, eta kontrakoa esaten duena ezintasunak eta beldurrak islatzen ari da soil-soilik. Esatekorik baldin baduzu, esan, ez diozu inori baimenik eskatu behar.

Nabarra aldizkaria, 2008

Galderak

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *azaltzen, lortzeko, moduan, kanpo, esparru, jadanik* (1'5 puntu).
2. Eman erregistro neutroko adizki hauei dagozkien hitanozko formak. Hona hitzak: *daiteke, diogu, naiz, dut* (Puntu bat).
3. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (1'5 puntu).
4. Aztertu testuaren egokitasuna (3 puntu).
5. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
6. *Gabriel Aresti*: aipa itzazu bere idazlanak eta idazteko erabili zuen estiloa (Puntu bat).

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua)
 EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)
 2008/2009 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.
 Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Animalia gutxi egongo da munduan, ibai-aingirak adina buruhauste eta arazo sortu dituen. Ez dira urte asko igaro animalia honen bizi-ziklo osoa ezagutzen dugunetik. Mende honetan, 1993. urtean jakin zen *zehazki* ibai-aingirak arrautzak non jartzen dituen eta angula non sortzen ziren. Horregatik sortu dira, hain zuzen, hainbeste uste eta *kontakizun* faltsu aingira eta angula edo txitxardinen inguruan.

Suge itxurari zor dio izena, <anguis> latinez sugea baita. Bere ugal-estrategia *korapilotsua* izan da, hainbeste buruhauste sortu dituen. Izan ere, aingira espezie arrunta izan arren, ez zen ezagutzen nola ugaltzen zen, ez baitzen sekulan ikusi arrautzekin. Are gehiago, bere erreprodukzio-aparatuak ez ziren deskribatu oso berandu arte.

Misterio, apurka-apurka argitzen joan zen eta gaur animalia honen bizi-zikloa mirestea besterik ez dagokigu.

Aurretik ordea, hainbat ibai-aingiraren bizimoduari buruzko hainbat uste, askotan baieztapen okerrak baino ez ziren. Aristotele konturatu zen igai-aingirak erreketatik itsasora joaten zirela, baina ugal-organurik topatzen ez zuenez, **lokatzetatik** eta usteldutako materia organikotik bere **kasa** sortzen zirela esan zuen.

Baina uste denetan **bitxiena**, 1864. urtean argitaraturiko liburu batean aurkitu dezakegun errezeta da. Ez da angulak edo aingirak sukaldean jateko prestatzeko errezeta, aingirak egin edo sortzeko errezeta baizik: “Maiatzeko ilgoran, 140 litro ihintz jaso, dozena bat aingira zahar hartu eta burua eta azala kenduko dizkiogu, ondoren barrunbeak atera eta mortairu batean xehetu eta pasta hau eguzkitan jarriko dugu. Aingiren haragiarekin egingo dugun beste pasta berriz, ilargiaren argitan ipiniko dugu. Ondoren bi pastak 140 litro ihintzekin nahastu eta egun gutxi barru jostorrazaren neurriko angula txikiak azalduko dira uretan; hauek putzu batera bota eta urtebeteren **buruan** aingira txikiak izango ditugu”. Nahi duenak proba dezala!

Igandea, 1997.eko apirilaren 20a. El DIARIO VASCO

Galderak

1. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin. Hona hitzak: *baieztapen, korapilotsua, kontakizun, zehazki* (Puntu bat).
2. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *buruan, bitxiena, kasa, lokatz* (Puntu bat).
3. Eman erregistro neutroko adizki hauei dagozkien hitanozko formak: *da, dira, dugu, zuen* (Puntu bat).
4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat).
5. Aztertu testuaren koherentzia eta kohesioa (3 puntu).
6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
7. Erramun Saizarbitoria: koka ezazu bere garaian eta mintza zaitez bere obren ezaugarriez (Puntu bat).